



Don IÑAKI TXINTXURRETA PERDIGUERO Jn.

Donostiako Udaleko Bitarteko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General en funciones del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua:

Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen
Batzordeak, 2023ko uztailaren 3an izan zuen
ez ohiko eta premiazko bileran, erakunde
adierazpen hau onartu zuen, gehiengoz:

“44 urteko antiguatar bat, Ion A. izenekoa, egoera larrian dago maiatzaren 27az gerotzik. Sorian izandako eraso baten ondorioz. Antiguatarraren familiak eta lagunek agiri batean jakinarazi dutenez, Ion Numancia eta Cornellà futbol taldeen arteko partida ikustera joana zen Soriara lagun katalan batekin. Betiere familiak eta lagunek azaldu dutenaren arabera, Ion taberna batera joan zen, non Numanciako eta Cornellako zaleak zeuden “errespetuz eta giro onean”. Hala ere, “aurpegia estalitako 50 bat faxistak” eraso zieten eta harri batek larri zauritu zuen donostiarra. Ionek konortea galdu zuen, Soriako erietxera eraman zuten lehenik, baina bertan baliabide nahikorik ez zutela eta, Burgosera eraman zuten ondoren. Joan den astean Donostiko ospitalera ekarri zuten. Senitarteko eta lagunen arabera, Ionek “garezurreko haustura” bat du eta beste bat, belarrian. Erasoa “erabat antolatua” izan zela gaineratu dute, beste toki batzuetako “faxistek” ere parte hartu zutela eta Espainiako poliziaren jokabidea zein tratamendu mediatikoa salatu dute.

Bien bitartean, kasu honetan zerikusia izan dezaketen erakunde publikoen aldetik ia inongo informaziorik gabe jarraitzen dugu; inongo ikerketarik dagoen ere ez dakigu.

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión extraordinaria y urgente celebrada el día 3 de julio de 2023, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

“Ion A., un antiguotarra de 44 años, se encuentra en estado grave desde el 27 de mayo como consecuencia de una agresión sufrida en Soria. La familia y los amigos del antiguotarra han informado en un comunicado que Ion había ido a Soria a ver un partido entre los equipos de Numancia y Cornellà junto con un amigo catalán. Según la versión ofrecida por su familia y amigos, Ion se dirigió a un bar en el que había aficionados del Numancia y del Cornellà, donde se respiraba un «buen ambiente, respetuoso». Sin embargo, «unos 50 fascistas con el rostro cubierto» atacaron a los aficionados allí presentes y el donostiarra resultó herido a consecuencia del golpe recibido por una piedra que habían lanzado. Ion perdió el conocimiento, fue trasladado primero al hospital de Soria, pero por falta de recursos, fue posteriormente trasladado a Burgos. La semana pasada fue trasladado al hospital Donostia. Según familiares y amigos, Ion presenta una «fractura craneal» y otra en el oído. Añaden que el ataque fue «totalmente organizado», y que en él participaron «fascistas» de otros lugares. Denuncian también la actuación de la policía española y el tratamiento mediático.

Mientras tanto, por parte de las instituciones públicas que pueden estar implicadas en este caso seguimos sin apenas información, y desconocemos si hay algún tipo de investigación en marcha.



Beraz, hau dena kontuan hartuta, EH Bildu udal taldeak honako erakunde adierazpen hau aurkezten du:

1-Donostiako Udalbatzak arbuiatu egiten du Sorian 44 urteko antiguatar batek jasotako erasoa, zeinaren ondorioz larri dagoen.

2-Donostiako Udalbatzak elkartasuna eta babesia adierazi nahi die Sorian larri zauritutako donostiarren familiari eta lagunei.

3-Donostiako Udalbatzak Sorian gertatutako erasoa argitzeko eskatzen die dagokien erakundeei". =====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2023ko uztailaren 12an.

Por tanto, teniendo en cuenta todo lo anterior, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente declaración institucional:

1- *El Pleno Municipal de San Sebastián rechaza la agresión sufrida por un antiguotarra de 44 años en la ciudad de Soria, por el que se encuentra en estado grave.*

2- *El Pleno Municipal de San Sebastián quiere mostrar su solidaridad y apoyo a los familiares y amigos del donostiarra gravemente herido en Soria.*

3- *El Pleno Municipal de Donostia pide a las instituciones implicadas que aclaren la agresión ocurrida en Soria".*
=====

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 12 de julio de 2023.

BITARTEKO IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES

Iñaki TXINTXURRETA PERDIGUERO

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**